

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko irailaren 11tik 15erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

INGALATERRAKO BANKUAREN BILERA



Datuaren analisia

Ingalaterrako Bankuak % 0,25ean eutsi zien interes-tasei, eta bere hedapen kuantitatiboko programan ere ez zuen aldaketarik egin. Soldaten igoera apalaren ondorioz, hazkundearen ahultasun handiagoarekin eta "Brexitaren" kostuarekin batera, ezinezkoa izan zen gaur egungo diru-politika gogortzea. Hala ere, erakundeak inflazioaren gaur egungo mailak nabarmendu zituen berriro, eta urrian KPIak ia ziur % 3a gaindituko duela adierazi zuen, bai eta hainbat urtez helburuaren gainetik kokatuko dela ere. Horregatik, Batzordeko kideek argi utzi zuten, presio inflazionistaren ondorioz, laster pizgarriak murrizteko aukera egungo dela.


Adierazlearen azalpena

Ingalaterrako Bankua (BoE) Erresuma Batuko banku zentrala da. Herrialdearen diru-politika zehazteaz arduratzen da, bere Diru Politikako Batzordearen bidez. Erresuma Batuko Gobernuaren Banku Zentrala da, eta, besteak beste, libera esterlina jaulkitzea eta bere zirkulazioa kontrolatzea dira bere eginkizun nagusiak.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Euroguneko ekoizpen industrialak % 0,1 hazi zen uztailean, ekainarekin alderatuta. Ekoizpen industrialak hamarren bat gora egitearen arrazoia kapitalaren ondasunen % 0,8ko hazkundera, kontsumo-ondasun iraunkorren % 0,7koa eta bitarteko ondasunen % 0,5ekoa izan zen.


Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkunderaren analisia egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisia

Abuztuan, kontsumorako prezioen indizeak % 0,4 egin zuen gora, eta, horrenbestez, urte arteko inflazioa % 1,9an geratu zen. KPlak izan duen igoerarik handiena izan zen urtarriletik, eta aurreko hilean prezioak % 0,3 igoko zirela aurreikusi zuten analisten aurreikuspenak gainditu zituen.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, “erosketa-saskia” izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Industria-ekoizpena % 6 hazi zen abuztuan, azken bederatzi hileotako erritmorik apalenean. Kontsultatutako analistek espero zuten industria-ekoizpenak % 6,6 gora egitea abuztuan, aurreko hilean % 6,4 hazi ondoren.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikuspena
09/18	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1.5
09/19	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	86.8
09/19	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
09/19	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	13.5
09/19	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 2.2
09/20	Japonia	Balantza komertziala	¥97.0b
09/20	Japonia	Urte arteko esportazioak	% 13.7
09/20	Japonia	Urte arteko inportazioak	% 11.6
09/20	Alemania	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 2.4
09/20	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
09/20	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.47m
09/20	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 0.6
09/21	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
09/21	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-1.6
09/21	Japonia	BOJ Komunikatua diru-politikaren bileraz	0
09/22	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 1.7
09/22	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	55.7
09/22	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	54.8
09/22	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	55.1
09/22	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	59.1
09/22	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	53.7
09/22	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	55.8
09/22	Espainia	Balantza komertziala	--
09/22	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	57.3
09/22	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	54.8
09/22	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	55.8
09/22	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	--
09/22	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	--
09/22	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Itxiera positiboak munduko burtsa nagusietan, liberaren balio handitzeak kaltetu zuen Londreseko burtsan izan ezik. Beste behin, Ipar Korea izan zen asteko protagonista. Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluak aho batez onartu zuen Ipar Korearen aurkako zigorrak gogortzea, eta petrolioaren produktu deribatuen inportazioei muga bat ezarri zien eta ehungintzako produktuen esportazioak debekatu zituen. Zigor horien aurrean, herrialdeak mehatxu berriak egin zizkien Japonia eta AEBei. Ostiralean, beste misil bat jaurti zuen, Japoniatik igaro zena, argi utziz Estatu Batuen lurretara iritsi daitekeela. Hala ere, gertakari horrek ia ez zuen eraginik izan burtsetan. Maila politikoan, AEBetan ezagutzera eman zen urratsak ematen ari direla Trumpek iragarritako zerga-pizgarriak aurrera ateratzeko, nahiz eta pizgarri horiek ez diren hasieran iragarri bezain oldarkorrek izango. Erresuma Batuan, EBtik ateratzeko legea onartzeko beharrezko babesa eskuratu zuen Mayk. Beste alde batetik, espero zen moduan, Ingalaterrako Bankuak ez zuen aldaketarik egin bere diru-politikan, baina tonua aldatu zuen, eta laster pizgarriak murriztea beharrezkoa izango zela ondorioztatu zuen.

ERRENTA FINKOA:

Tasek gorantz egin zuten Atlantikoaren bi aldeetan. Taseen goranzko mugimenduen atzean, honako arrazoi hauek aurki ditzakegu: diru-politika britainiarraren gogortzea, laster AEBetan zerga-plan bat iragartzeko aukerak eta abenduko Fed-en bileran tasak igotzeko aukera handiagoak, KPIaren datua espero baino hobea izan ondoren. Hamar urterako bonu alemanaren errentagarritasuna 12 op igo zen. Haren homologo espainiarra 6 op igo zen, % 1,61eraino, eta arrisku-prima 6 op murriztu zen, 117 puntuetaraino. AEBetan, hamar urterakoak 15 op egin zuen aurrera, % 2,20raino. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Etorkizun hurbilean zerga-plan bat ezartzeko aukeren iragarpenarekin, dibisa amerikarrak bultzada jaso zuen, eta bere balioak % 0,67 egin zuen gora euroarekin alderatuta. Liberaren sendotzea ere nabarmendu behar da, % 3,48 egin baitzuen gora euroarekin alderatuta. Mayk EBtik ateratzeko legea onartzeko babes nahikoa lortu ondoren eta Ingalaterrako Bankuak tasak aurreikusi baino lehenago igo ditzakeela iragarri ondoren gertatu zen hori. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 3,21 handitu zen. LPEE eta AIEren eskarien aurreikuspen hobeei eta LPEEtik kanpoko herrialdeek petrolio gordin gutxiago ekoizteak kotizazioari lagundu zioten. Urreak, azkenik, erakarmena galdu eta % 1,95 egin zuen atzera.

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.